
HEZKUNTZA GIDA

Gure hezkuntza sistemara
hurbiltzeko gida

A black spiral-bound notebook is shown diagonally from the bottom left towards the center of the page. The spiral binding is visible on the left side.

ehi 
gurasoen elkarte

Edizio
2009



BAIKARA

Baso Txiki, 36 atzealdea - 20015 DONOSTIA

Tel: 943 32 72 08 - Fax: 943 27 49 77

E: baikara@ehige.org - W: www.baikara.org



BIGE

Ronda, 27 1. ezk. - 48005 BILBO

Tel: 94 416 93 60 - Fax: 94 416 66 48

E: bige@ehige.org - W: www.gurasoelkarteak.org



DENON ESKOLA

Florida kalea, 62 A - 01005 VITORIA-GASTEIZ

Tel: 945 25 61 62 - Fax: 945 25 76 80

E: denon@ehige.org - W: www.denoneskola.org



ESKOLA TXIKIAK

Altzoko Udaletxea, Altzo Muño, 73 - 20268 ALTZO

Tel: 635 739 146

E: eskolatxikiak.ikaztegieta@udal.gipuzkoa.net

W: www.eskolatxikiak.org

EUSKAL HERRIKO GURASOEN ELKARTEA
Ronda, 27 - 1.ezk. Tel. 94 416 93 60 - Fax. 94 416 66 48
email: ehige@ehige.org www.ehige.org

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Lagundutako argitalpena

EHIGE, Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarte, Euskal Eskola Publikoko familia gehien ordezkaritza duen konfederazioa da. Ikastetxe publikoetako ikasleen guraso zein tutoreek, ikastetxeetako kudeaketan parte hartzeko duten eskubidearen promozioa eta defentsa da gure lehendabiziko helburua.

Familien inizatibak erraztu eta defendatzen ditugu, euren beharriazanei erantzuten saiatzen gara. Gure seme-alabak pertsona integralak eta profesionalak izan daitezen, kalitatezko eta baliabide hoberen izango duen hezkuntza lortzeko, hezkuntza prozesu osoan familien partaidetza eta erabakitzeko eskubidea bultzatzen dugu.

Gida honetan gure hezkuntza sistemaren ezaugarri nagusiak azaltzen dira, bereziki ikastetxe publikoko ezaugarriak, familien partaidetza eta ikastetxeen antolakuntza ezagutzen laguntzen du. Gure sistemara lehenbizikoz hurbiltzen diren familiek euren seme-alaben hezkuntza ibilbidearen informazioa lortu dezakete hemen.

Informazio gehiago behar izanez gero jar zaitezte kontaktuan zuen herrialdeko federazioarekin.

EHIGE Gurasoen Elkarte

HEZKUNTZA GIDA

Gure hezkuntza sistemara hurbiltzeko gida.

Dokumentu hau hizkuntza ezberdinetan jasotzeko aukera dago.

Edizioa: 2009

Ale kopurua: 5.000 ale

Copyright: EHIGE Gurasoen Elkartea

Argitaratzailea: EHIGE Gurasoen Elkartea

Egilea: EHIGE

Maketazioa eta inprimaketa: Grafinorte

Lege-gordailua: BI-2537-09

Aurkibidea

➤ Aurkezpena	3
➤ Hezkuntza Sistema	6
➤ Irakaskuntzaren Antolakuntza	6
➤ Ikastetxearen Antolakuntza	8
➤ Guraso Elkartek	8
➤ Ikastetzeko Agiriak	9
➤ Egutegi eta Ordutegia	10
➤ Textu Liburuak	11
➤ Jangela eta Eskola Garraioa	11
➤ Tutoretzak	11
➤ Irakasleriaren Formakuntza	12
➤ Bestelako hezitzaileak	12
➤ Familiekiko Batzarrak	12
➤ Ikasleen Bertaratzeko Betebeharra	12
➤ Kalifikazioak Erreklamatzeko Eskubidea	12
➤ Ikastetxeen osasun eta segurtasunaren araudia	12

HEZKUNTZA SISTEMA

Euskal Eskola Publikoa

Autonomi Elkarteko Administrazioaren jabetzapekoak eta Udal-erakundeen jabetzapekoak dira eskola publikoak.

Euskal Eskola Publikoak kalitatezko hezkuntza eskaintzen die haur guztiei, berdintasuna eta kontzientzi askatasuna, errespetua, integrazioa eta norberaren autonomia bermatzen du.

Eskolatzea dohainik da. Bi-hiru urterekin has daitezke eskolan. Derrigorrezkoa da 6-16 urte bitartean. Batxilergo eta Heziketa zikloak egin dezakete ostean. Nahi duten familientzat 0-2 urte bitarteko eskolak daude, Haurreskolak.

Gure eskola elebiduna da, euskara eta gaztelaniaren ezaguera bermatzen du, gure lurraldeko bi hizkuntza ofizialak.

Horrela behar duten ikasle guztiak hezkuntza berezia jasotzeko eskubidea dute, euren gaitasunak gehien garatzen duen hezkuntza.

Matrikulazioa oro har otsailaren hasieran izaten da. Gure etxetik gertuen dagoen eskolan egiten da eta bertan informazioa eta inprimakiak ematen zaizkie familiei.

Urtero Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak ikasleek lortzen dituzten kompetentziak neurtzeko diagnosi ebaluaketa egiten du (lehen hezkuntzako laugarren mailan eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako bigarren mailan).

IRAKASKUNTZAREN ANTOLAKUNTZA

Haur Hezkuntza

0-6 bitarteko ikasleak hartzen ditu. Zero-bi/hiru bitartean Haurreskoletan eta Udaletako haur hezkuntzako ikastetxeetan ematen da eta 2/3 -6 urte bitartean eskoletan.

Oinarrizko Hezkuntza

Eskolatzeak hamar urte osatzen du, 6 urtetik 16 urte bitartera. Aukera dago, horrela behar duenarentzat, 18 urterarte jarraitzeko.

Horrela banatuta dago:

- **Lehen Hezkuntza**

Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan irakasten dena, 6-12 urte bitartean.

- **Derrigorrezko bigarren hezkuntza**

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan irakasten da, 12-16 urte bitartean. Lehen hezkuntzako ikastetxe guztiak bigarren hezkuntzako ibilbideko ikastetxea dute.

Ikasketen amaieran jarritako helburuak gainditzen dituzten ikasleek **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako** graduatu-titulua lortzen dute.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egin eta graduatu-titulua lortzen ez duten ikasleek eskola-ziurtagiria jasoko dute, eta bertan eskolan egindako ikasturteak adieraziko dira, eta Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa bat egin dezakete.

Derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondokoa

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-tituluarekin egin ahal diren ikasketak dira.

- **Batxilergoa**

Bi ikasturtez osaturik dago. Osorik edo gainditu gabeko ikasgaiak soilik errepikatu ahal dira lau urteko epean. Hiru modalitate daude: Arteak; Zientziak eta Teknologia; Giza eta Gizarte Zientziak.

- **Erdi-mailako heziketa zikloak**

Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren tituluarekin edo sarbide-probaren bidez sar daiteke. Ez du iraupen finkorik, kurtso eta erditik bi kurtSORA bitartean.

- **Erdi mailako arte plastikoak eta diseinua**

- **Erdi mailako kirol irakaskuntzak**

Goi-mailako hezkuntza

- **Irakaskuntza unibertsitarioa**

- **Goi-mailako lanbide heziketa**

- **Goi mailako arte irakaskuntzak**

- **Goi mailako arte plastikoak eta diseinu irakaskuntzak**

- **Goi mailako kirol irakaskuntzak**

- **Hizkuntz irakaskuntzak...**

18 urte baino gehiagoko pertsona guztiak ikasketak lortzeko edo dituen ikasketak garatzeko aukera dute Helduen Hezkuntza (HHI)ren bitartez.

IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA

■ OOG, Ordezkaritza Organo Gorena-Eskola Kontseilua

Eskolaren gobernuan partaidetza-organoa da. Bertan ikastetxearen erabaki garrantzitsuenak hartzen dira. Familiak, irakasleria, ikasleria (bigarren hezkuntzan), zuzendaritza, Udala eta ez-dozentek ordezkatura daude.

■ Zuzendaritza edo zuzendaritza taldea

Hiru kidek osatzen dute: zuzendaria, ikasketa burua eta idazkaria. Ikastetxearen kudeaketa orokorra eta iharduraren arduradunak dira.

■ Irakasle-klaustroa

Ikastetxearen hezkuntza alderdi guztien planifikazio, koordinazio, informazio eta horrela behar izanez gero heziketa erabakiak hartzeko ardura du. Ikastetxean lanean diharduten irakasle guztiak osatuko dute eta zuzendaria izango du buru.

■ Guraso asanblada

Ama, aita eta tutore guztiak osatuta dago. Familien partaidetza organoa da.

■ Ikasleriaren partaidetza

Ikastetxe bakoitzean arautzen da. Ikasleriak eskubide eta betebeharren dekretuaren bitartez euren hezkuntza eskubideak bermatzeko eta duten betebeharrak ezagutzeko egina dago. AJAn, Antolakuntza eta Jarduera araudia, bideratzen dira.

GURASO ELKARTEAK

IGEek, Guraso Elkarteek, Euskal Eskola publikoko Familien inizatibak erraztu eta defendatzea dute helburu. Zure eskolan edo gida honetan agertzen den helbidearen bitartez, guraso elkartearen informazioa lortuko duzu. Guraso Elkarte bakoitzak OOG- Eskola Kontseiluan ordezkari bat dauka, familien eskariak bertara eramateko.

IKASTETXEKO AGIRIAK

Orain aipatuko ditugun agiriak ikastetxearen hezkuntza hautabidea, bere balore eta helburuak finkatzen dituzte. Guztiak OOG – Eskola Kontseilua eta Guraso Elkartearen bitartez familien eskura izango dira.

IHP. Ikastetxearen Hezkuntza-proiektua

OOG-Eskola Kontseiluak prestatzen du eta bertan ikastetxearen filosofia zehazten da, bere balore eta helburuak. Proiektu integratzailea da. Bertan aspektu garrantzitsuak zehazten dira hala nola pedagogi diseinua, antolakuntza printzipioak, ebaluaketa arauak, euskararen erabilera, ingurunearekiko harremanak, partaidetza, ikastetxeko proiektuak, familiekiko harremanak... Hezkuntza proiektua berriztagarria izan behar da eta eskola komunitateari irekia. Beste agiri guztiek Ikastetxe Hezkuntza-proiektuaren helburuak eta filosofia bete behar dituzte.

ICP. Ikastetxearen Curriculum-proiektua

Hezkuntzaren eduki, helburu eta kompetentziak garatzen ditu; ikasleak etengabe ikasi behar duena; ikastetxean erabiliko diren metodologi eta materialak; ebaluaketa nolakoa izango den... Ikaslearen beharrei egokitzen da. Irakasleek egiten dute eta OOG-Eskola Kontseiluan aurkezten da.

AJA. Antolakuntza eta Jarduera Araudia

OOG-Eskola kontseiluan onartzen da. Ikastetxearen egituraren definizioa eta funtzionamendua jasotzen du: egitura, kudeaketa organoak, elkarbizitzako arauak, eskubide eta betebeharrak, instala-zioen erabilera, koordinazioa, erreklamazioak egiteko erregimena...

Kudeaketa-proiektua

Ikastetxearen antolamendua eta baliabideen erabilera jasotzen du. Bertan era guztietako baliabideak agertuko dira (ekonomikoak, giza-baliabideak, materialak). Baita ere irakasleriaren antolakuntzaren printzipioak. OOG-Eskola Kontseiluak onartu behar du, betetzen dela zaindu eta ebaluatu.

Hizkuntza proiektua

Hizkuntzen irakaskuntzarekin eta erabilpenarekin lotutako alderdi guztien plangintza jasoko duen agiria da Hizkuntza Proiektua. OOG-Eskola kontseiluan onartzen da (Ikastetxe hezkuntza proiektuan barne). Proiektu honen bitartez, ordutegi, baliabide... eta ikasleak bere ikasketen jarraipena eta lan-munduko egokitzapenarako behar duen euskara eta gaztelaniaren ezagupena bermatuko da. Bertan, atzerritar hirugarren hizkuntzaren ezagueria zehaztuko da.

Elkarbizitza Plana

Elkarrekin bizitzen ikastea hezkuntzaren helburu nagusietako bat da. Ikastetxeetan gurasoen partaidetzarekin, elkarbizitza eta inplikazioa bultzatuko duen, bizikidetzatza batzorde / behatokia sortzea gomendatzen da.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak elkarbizitza behatokia sortu du.

Ikastetxeek, Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa sailak emandako elkarren arteko tratu txarren jokabide gida izango dute. Elkarrenarteko tratu txarrak (bullying) berehala jakinarazi behar da Ikuskaritzara.

Ikastetxearen URTEKO PLANA

Ikasturte bakoitzeko agiri garrantzitsua da, OOG-Eskola Kontseiluak eztabaidatu eta onartzen du. Ikasturteko hezkuntza ekintza guztiak jasotzen ditu: ikasturteko helburu bereziak, proiektuak, egutegia, koordinazioa eta antolakuntza..., beti ere Hezkuntza proiektua eta goian aipatutako agiriak errespetatuz. Atal hauek osaturik dago: **Hezkuntza aktibitate plana, Prestakuntza plana, eskolaz kanpoko ekintzak, ekintza osagarriak eta Gestio plana**. Ikasturte amaieran OOG-Eskola Kontseiluak, bereziki autoebaluaketaren emaitzak jasotzen dituen **urteko memoria** egingo du, klaustroaren mahitazko informea behar du.

EGUTEGI ETA ORDUTEGIA

Egutegia

Ikasturtea, ohizkoa denez, iraileko bigarren astean hasi eta ekainaren hirugarren astean amaitzen da.

Oporretako hiru etenaldi daude:

- Urte amaieran: Abenduaren 22tik urtarrilaren 7ra gutxi gora behera.
- Paskoa: Martxo eta apirilaren bitartean.
- Uda: Ekainaren 20-23tik irailaren 7-9rarte.

Ordutegi minimoa hau da: 5 ordu haur eta lehen hezkuntzan eta 6 ordu bigarren hezkuntzan.

Ikasturtero OOG-Eskola Kontseiluak hurrengo ikasturteko egutegia eta ordutegia onartzen du: jaiak, klase egunak, ordutegiak... agertzen direlarik.

Eskola jarduera

Gure haur, lehen, eta derrigorrezko bigarren hezkuntzan, goiz eta arratsaldeko jarduera dugu.

Ordutegi honetan **osagarritzko aktibitateak** programatzen dira, eskola jardueraren planean daude eta derrigorrezkoa dira. Irakasleriak antolatzen ditu eta ikasleek egunero ikasten duten kasgaiak laguntzeko antolatzen dira: kultur irteerak, ingurunearekiko bisitak, praktikak...

Ikastetxeetan **eskolaz kanpoko ekintzak** ere antolatzen dira, hau da eskola ordutegitik kanpo eta ikasleriaren gaitasun anitz garatzeko balio dute. Borondatezkoak dira. Ikasleak kirola, jokoak, musika, dantza edo gustuko duen besteren bat jaso dezake. Ordu horietan hezkuntza errefortzua ere jaso dezake. Aktibitate hauek orohar Guraso Elkarteak antolatzen ditu.

TEXTU LIBURUAK

Azken urteotan, Testu liburuen eta material didaktikoen kudeaketa solidarioa eta zuzena egiteko programa martxan jarri da. Irakaskuntza Publikoko derrigorrezko hezkuntzako ikasleei testuliburuak eta material didaktikoak finantzatzea du helburua. Ikasleen eta haien familien artean, solidaritatea, erantzukizuna, kurrikular material eta liburuen zaintza eta berrerabilera baloreak bateratu nahi ditu, ingurune mantentzeko ezinbesteko gai bezala.

JANGELA ETA ESKOLA GARRAIOA

Ikastetxeak, behar dituzten ikasle guztientzako jantoki zerbitzua du. Jangela ordutegian liburutegiko aktibitate eta adin ezberdinetako jolasak antolatzen dira.

Ikastetxetik bere etxebizitza bi kilometro baino gehiagoko distantzia duten familiek garraioa edo laguntza izango dute eskolara heltzeko.

■ Bekak

Horrela behar duten ikasleentzat, hezkuntza, garraio, jantoki eta beste behar izan batzuentzako ikasketa laguntzak izango ditu.

Bekak eskolan eskatzen dira ikasturte hasieran.

TUTORETZAK

Ikastetxeetan ikasgela bakoitzeko tutore bat izango da. Tutoreak, beregan dituen ikasgaien irakasteaz gain, berezko funtzioak ditu: bere taldearen irakasleen koordinazioa, ikasleei hezkuntza, profesional eta norberaren orientazioa eman, eskola aktibitateen informazioa eman ikasle zein familiei, ebaluaketa sesioak koordinatu, emaitzen informea eman...

IRAKASLERIAREN FORMAKUNTZA

Eskolako irakasle guztiak euren proiektuen garapenerako edo bere lanekiko gauzarako prestakuntza ikastaroak dituzte edo eskatu ditzakete. Prestakuntza ikastaroak Ikasturteko Planean zehazki agertu behar dira.

HEZIKETA ERREKURTSOAK

Hainbat ikastetxeetan zerbitzu bereziak daude ikasleentzat. Berritzegunetatik eta ikastetxean bertan bereziki ikasle batzuentzat antolatutako zerbitzuak dira. Berezko profesionalen esku ustean dira laguntza hauek.

FAMILIEKIKO BATZARRAK

Ikastetxeak familiak informatzeko sesioak antolatu beharko ditu, familien parte hartze errazten eta irakasleak joan daitezenez ere ahalegintzen. Batzar hauen izaerak (irekiak, orokorrak, taldeka, banakazkoak etab.) eta beraien eraketak Antolakuntza eta Jardueren Araudian hitzartutakoa errespetatuko du.

IKASLEEN BERTARATZEKO BETEBEHARRA

Ikasleek egunero joan behar dute eskolara, puntualtasunez eta justifikatu gabeko absentziarik izan gabe, eta sartzeko nahiz irteteko ordutegiak errespetatu behar dituzte. Eskolara ez joateak, familiaren justifikazioa behar du, tutoreari eman behar zaio eta ikasketa buruak onartu behar du. Ikusten bada behin eta berriz bereizi gabeko faltak daudela, ikasketa buruak OOG-Eskola Kontseilura informea eroango du eta aldi berean egoera zuzentzeko neurriak proposatuko ditu, justifikazioen kontrola indartzeko.

KALIFIKAZIOAK ERREKLAMATZEKO ESKUBIDEA

Ikasleek eta haien familiek edo tutore legalak ebaluazio kalifikazioak erreklamatzeko eskubidea dute. Ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudian eta ikasleen eskubide eta betebeharren dekretuan erreklamazioak egiteko erak jasotzen dira *“Ikasleen edo bere kasuan euren familiek edo arduradun legalek, ebaluaketan, zuzenduta daudelarik, zer esana duten froga guztien ezauguera izateko eskubidea dute eta dagokion alegaioa aurkeztu edo/eta berrikustea eskatu dezakete”*.

OSASUN ETA SEGURTASUN ARAUDIA

Ikastetxeek Segurantzaren eta Higienearen sistema dute. Derrigorrezkoa da urtero behin gutxienez larrialdi-irteera simulazioa egitea. Ikastetxeetan, edozein ikasle-adina eta ikasketak izanik, guztiz **debehatuta dago tabako eta edari alkoholikoen** salmenta eta kontsumoa. Ikastetxe guztiek gutxienez botika eramakorra bat izan behar dute.